

EGILEAK: 5. mailako Olatz eta Alazne



UREZKO PUXIKA

Gu Olatz eta Alazne gara, eta "Urezko puxika" izeneko jostailua egin dugu. Guretzako oso dibertigarria izan da eta oso erreza. Espero dugu zuek, guk moduan, gustokoa izatea. Egin nahi duzue? Ba hemen dituzue pausuak eta beharrezko material zerrenda...

MATERIALAK

- HARRI TXIKI BAT
- ZELO
- PUXIKA BAT
- ORRATZA EDO ILTZEA
- ZULOTXO AZPIAN DUEN PLASTIKOZKO ONTZIA
- TAULA
- MAILUA
- KOLA
- URA
- PLASTIKOZKO KUTXA BAT
- EGUR ZATI BI : BAT LUZEA ETA BESTE BAT LABURRAGOA
- METALEZKO MAKIL BAT.

NOLA EGINGO?

Lehenengo, taularen izkina batean egur zati luzeagoa kolaz kolatu ezazu.

Ondoren, beste egurra hartu eta erdian itsatsi. Egur honetan metalezko makila iltzatu, balantza bat egiteko moduan, eta makilaren mutur batean zeloa erabiltzen bi orratz itsatsi.

Gero, klipa hartu eta luzatu makiltxo bat egin arte. Klipean plaztikozko ontzia eskegi.

Jarraian, plastikozko kutxa taulan itsatsi, kontutan hartzen ontziaren azpian egon behar dela.

Bukatzeko, egur luzearen puntan puxika bat itsasten dugu eta beheko kutxan ura satzen dugu.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Zulotxo duen plastikozko ontziak harri bat du sartuta. Harriaren pisuarekin metalezko makila mugitu egiten da eta orratzak gorantz egiten du. Orduan puxikak pppppuuuuuuunnnnnn egiten du.